BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEAREN ARTEKO HIZARMENA, 2022AN TURISMOA SUSTATZEKO ETA NAZIOARTE MAILAN BULTZATZEKO

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DE BILBAO METROPOLITANO PARA LA PROMOCIÓN TURISTICA Y EXTERIOR DE 2022

Bilbo, 2022ko -aren a

En Bilbao, a de de 2022

BILDU DIRENAK

REUNIDOS

Batetik AINARA BASURKO URKIRI andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko foru diputatua, erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Foru Aldundiaren 2022ko ………………ren …ko Erabakiaren bidez (32.gaia)emandako ahalmenak erabiliz.

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. AINARA BASURKO URKIRI, Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, en nombre y representación de dicha Institución, en uso de las facultades otorgadas mediante Acuerdo nº de la Diputación Foral de fecha de de 2022.

Bestetik IDOIA POSTIGO FUENTES andrea, “Bilbo Metropolitarra Birbizteko Elkartearen” zuzendari nagusia, elkarte horren izenean eta beraren ordezkari gisa, estatutuek eman dizkioten ahalmenak erabiliz.

Y de la otra parte, la Sra. IDOIA POSTIGO FUENTES, Directora General, en nombre y representación de la “Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano”, y en uso de las facultades que le confieren los estatutos de la misma.

Ordezkaritza biak hitzarmen hau sinatzeko ados daude, eta horren ondorioz, hauxe

Ambas representaciones declaran su intención de suscribir el presente Convenio y exponen lo siguiente:

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN

LEHENENGOA.- Honako hitzarmen honen xedea da Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkarteari Aldundiaren 2021ko indarreko aurrekontuan jasotako dirulaguntzak ematea. 4. kapituluan, Transferentzia arruntak izenekoan. Horniduraren zenbatekoa MILIOI BAT LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA EUROKOA (1.475.000,00 €) da. Halaber, onuradunak onartzen dituen konpromisoak eta baldintzak zehaztuko dira.

PRIMERO.- Que la finalidad del presente convenio es canalizar a favor de la asociación para la revitalización del Bilbao Metropolitano la subvención nominativa prevista en el presupuesto 2022 dentro del crédito consignado en el capítulo 4 (Transferencias Corrientes), siendo el importe de la dotación de UN MILLÓN CUATROCIENTOS SETENTA Y CINCO MIL EUROS (1.475.000€), así como establecer las condiciones y los compromisos que asume la beneficiaria.

BIGARRENA.- Bilbo Metropolitarra Birbizteko Elkartea sustatu eta ikertzeko elkartea da eta lege nahiz ondare erantzukizun osoa du. 1991ko maiatzaren 9an eratu zen eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan 1991ko abenduaren 18az gero inskribatuta dago AS/B/03012/1991 zenbakiarekin. Eusko Jaurlaritzak "Erabilgarritasun Publikoko Erakunde" bezala onartu zuen 1992ko ekainaren 9an eta bazkide fundatzaileen artean, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundia du.

SEGUNDO.- Que la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano es una asociación de promoción e investigación, con plena responsabilidad jurídica y patrimonial, constituida el 9 de mayo de 1991 e inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco el 18 de diciembre de 1991 con el nº AS/B/03012/1991. Obtuvo el reconocimiento de "Entidad de Utilidad Pública" por el Gobierno Vasco el 9 de junio de 1992 y tiene como socios fundadores entre otros, a la Diputación Foral de Bizkaia.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen honetako Elkartearen helburua da Plan Estrategikoaren ondorioz bere ardurapeko ekintza guztiak egitea, bereziki Bilbo Metropolitarraren barne- eta kanpo-irudia hobetzea helburu duen guztia.

TERCERO.- Que la finalidad de la Asociación en este acuerdo es la realización de cuantas acciones derivadas del Plan Estratégico sean confiadas a su responsabilidad y, en particular todo lo que tenga por objeto la mejora de la imagen interna y externa del Bilbao Metropolitano.

LAUGARRENA.- Elkartearen xede eta helburu batzuek bat datoz Bizkaiko Foru Aldundiaren berezkoekin, honako hauekin, Bizkaia Europako eta estatutako dimentsioetan indartzeko eta garatzeko jarduerak egitea, helmuga estrategikoetako sustapen-ekitaldietan arreta jarrita, Bilbo Bizkaia nazioartean kokatzeko, besteak beste.

CUARTO.- Que algunos de los fines y objetivos de la Asociación coinciden con los propios de la Diputación Foral de Bizkaia, como son la realización de actuaciones de potenciación y desarrollo de Bizkaia en términos de dimensión europea e internacional, centrándose en eventos promocionales en destinos estratégicos, para posicionar Bilbao Bizkaia a nivel estatal e internacional.

BOSGARRENA.- Bizkaia Estatuan, Europar Batasunean eta munduan oso-osorik sustatzen duten ekintzak garatzeko aukera garrantzitsuak daude eta horietan Bizkaiko Foru Aldundiaren presentzia egokitzat jotzen da.

QUINTO.- Que existen importantes oportunidades para desarrollar acciones de promoción integral de Bilbao Bizkaia en el Estado, en la Unión Europea y en el resto del mundo en las que la presencia de la Diputación Foral de Bizkaia se considere oportuna.

SEIGARRENA.- Arestian aipatutakoarengatik eta Bizkaia nazioartean sustatu eta kokatzeko helburuarekin, nahitaezkoa da hitzarmen honen eremua eta horretan gauzatu behar diren alderdiak zehaztea.

SEXTO.- Que por lo anteriormente señalado y con el fin de impulsar y potenciar las labores de promoción y posicionamiento de Bilbao Bizkaia en el exterior, es preciso determinar el ámbito de este Convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar.

Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko (DFA) 20.2. artikuluan xedatu denez, zuzenean eman daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako izendun dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian ezarritakoaren arabera. 26.1. artikuluan, berriz, hitzarmen horiek dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak izango direla xedatu da.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (NFS en adelante) dispone en su artículo 20.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas

subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren (DLFAA) 50. artikuluan ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailetzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoreetarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50, prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, bi aldeek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmena arautuko duten klausulak

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENENGOA.- XEDEA

Bilbo Metropolitarra Birbizteko Elkarteari dirulaguntza izendun hau ematea babesten duen aurrekontu kreditua 4. kapituluko ("Transferentzia arruntak") eta 432109 programako kreditua da. Hortaz, ezinezkoa izango da funtsak kreditu horri egotzi dakizkiokeen gastuez bestelako izaera eta helburua duten gastuei aplikatzea.

Ondorioz bi alderdiek adostu dute dirulaguntza 2022ko jarduketa-programa finantzatzeko erabiliko dela, onuradunak bi ardatz nagusitan garatu beharreko jarduerekin:

A – Turismoa sustatzea: 1225.000 €
B – Kanpo-Sustatzea: 250.000 €

A - Turismoa sustatzeko ardatzean bultzatutako proiektuak. Ardatz horrek honako ekintza hauek biltzen ditu:

1) Consumer eta PR: arlo honen barruan honako jarduera hauek egingo dira:
   - “Gastroshow Bilbao Bizkaia” ekitaldien ekoizpena.
   - Venuen alokairua.

### PRIMERA.- OBJETO

El crédito presupuestario que ampara la concesión de esta subvención nominativa a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano es un crédito del capítulo 4, “Transferencias corrientes” del programa 432109, por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

En consecuencia, ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar el programa de actuación 2022 con actividades a desarrollar por la beneficiaria en dos ejes principales:

A – Promoción Turística: 1.225.000 €
B – Promoción Exterior: 250.000 €

A - Los proyectos impulsados en el eje de Promoción Turística, que contiene las siguientes acciones:

1) Consumer y PR: Dentro de este área se realizarán las siguientes actividades:
   - Producción de eventos “Gastroshow Bilbao Bizkaia”
   - Alquiler de venues.

- Nazioarteko ordezkaritza-agentziak.
- Press eta influencer tripak.

2) Kanpaina digitala:
   - Hurbiltasun-merkatuetako posizionamendu digitala.
   - Posizionamendu digitala nazioarteko merkatuetan (Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Herbehereak, Italia, Herrialde Eskandinaviarrak, etab.).
   - Sorkuntzak.
   - Filmaketak eta ekoizpena.

3) Ko-marketina aire-konpainiekin: garraioko eta bidaia-bitartekaritzako empresa operadoreei laguntzea, ibilbide berriak irekitzeko edo helmuga eta turismo-produktuak merkaturatzeko euskarri diren kanpaina lankideekin. Normalean, inbertsioa xedearen eta enpresaren artean erdibana finantzatzen da, bi aldeek euren gain hartutako konpromisoekin.

4) Consumer Idazkaritza Teknikoa eta PR Marketina: Idazkaritza tekniko bat behar da marketin digitaleko jarduketen garapena kudeatzeko, bai eta aurreikusitako B2C eta PR sustapen-egutegia abian jartzeko ere.

5) Turismo-identitatea: atal honen barruan honako jarduera hauek gertatu dira:
   - Bilbao Bizkaia marka turistikoa.
   - Lurraldearen eta hiriburuaren irudi positiboa, koherentea eta egonkorra sustatzea.
   - Bisitariak, inbertsioak, ekitaldiak eta talentua erakartzeko gakoa.

B.- Kanpo Sustapenaren ardatzean bultzatutako proiektuak, Lurralde Historikoko enpresak nazioartekotzera eta kanpoan sustatzera bideratutako ekintzekin,(250.000 €):

1) Bizkaiaren lehiakortasuna eta nazioarteko posizionamendua hobetzeko azterlanak egitea.
2) Bizkaiko enpresa-sarearen erakarpena eta dinamizazioa handitzeko ekintzak, inbertsio berriekin.
3) Bizkaiko diseinu integraleko tresnak

- Agencias de representación internacional.
- Press e influecer trips.

2) Campaña digital:
   - Posicionamiento digital en mercados de cercanía.
   - Posicionamiento digital en mercados internacionales (Francia, Reino Unido, Alemania, Países Bajos, Italia, Países Nórdicos,....)
   - Creatividades.
   - Rodajes y producción.

3) Co-marketing con compañías aéreas: Apoyar a aquellas empresas operadoras de transporte y de intermediación de viajes con campañas cooperadas que den soporte a la apertura de nuevas rutas o comercialización del destino y de sus productos turísticos. Habitualmente la inversión se hace a partes iguales entre el destino y la empresa, con compromisos asumidos por ambas partes.

4) Secretaría Técnica Consumer y PR Marketing: Se requiere una secretaría técnica que gestione el desarrollo de las actuaciones de marketing digital, así como, la puesta en marcha del calendario de promoción B2C y PR previsto.

5) Identidad Turística: dentro de este apartado se desarrollarán las siguientes actuaciones:
   - Marca turística Bilbao Bizkaia.
   - Potenciar una imagen positiva, coherente y estable del territorio y su capital.
   - Clave para la atracción de visitantes, inversiones, eventos y talento.

B.- Los proyectos impulsados en el eje de Promoción Exterior, con acciones orientadas a la internacionalización y promoción exterior de las empresas del Territorio Histórico, (250.000€):

1) Realización de estudios para la mejora de la competitividad y posicionamiento internacional de Bizkaia.
2) Acciones que aumenten la atracción y dinamización del tejido empresarial de Bizkaia con nuevas inversiones.
3) Análisis de instrumentos de diseño integral de

aztertzea, etorkizun estrategikorako.

4) Hirigintzan, inbertsioen erakarpenean, ezagutzan eta talentua erakartzean adituak diren lehen mailako nazioarteko eragileekin hitz egitea.
5) Aurreko jarduketen garapenarekin lotutako nazioarteko ordezkaritzak jasotzea.

Bizkaia para su futuro estratégico.

4) Interlocución con agentes internacionales de primer nivel expertos en urbanismo, captación de inversiones, conocimiento, atracción de talento…
5) Recepción de delegaciones internacionales vinculadas con el desarrollo de las actuaciones anteriores.

BIGARRENA.- ZENBATEKOA ETA AURREKONTU KREDITUA

Dirulaguntzaren zenbatekoa MILIOI BAT LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA EURO (1.475.000 €) da, hau da, baimendutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa. Kreditu horri egotziko zaio emandako zenbatekoa. Kreditua 2022ko ekitaldiko aurrekontuko aurrekontu-partida honen kargura izendatuko da: 45100 kontzeptua, 432109 programa, 0808 programa organikoa, 2017/0046 proiektua "Bizkaia sustatzea eta kanpoaldean posizionatzea".

SEGUNDA.- CUANTÍA Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO.

La cuantía de la subvención asciende a UN MILLÓN CUATROCIENTOS SETENTA Y CINCO MIL EUROS (1.475.000 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. A dicho crédito, designado con cargo a la partida presupuestaria: Concepto 45100, Programa 432109, Orgánico 0808, Proyecto: 2017/0046 "Promoción y Posicionamiento de Bizkaia en el exterior" del presupuesto del ejercicio 2022, se imputará la cuantía otorgada.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNA

Bilbo Metropolitarra Birbizteko Elkarteak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluaren arabera, ezarritako betebehar guztiak bete beharko ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkarteari eskatzen dio berdintasun-printzipioa betetzea, hau da, haren helburuetan, onartze-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueran, diskriminaziorik ez egitea sexua dela-eta edo beste edozein egoera zein inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.

TERCERA.- ENTIDAD BENEFICIARIA

La Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la NFS, para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención. La entidad beneficiaria se compromete a cumplir la totalidad de las obligaciones establecidas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, anteriormente citada.

Por otro lado, de acuerdo con el art. 13 de la NFS estará sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el precitado artículo.

La Diputación Foral de Bizkaia exige a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano el cumplimiento del principio de igualdad en el sentido de que, en sus fines, sistemas de admisión, funcionamiento, trayectoria o actividad, no se discrimine por razón de sexo o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

Gomendio hori osatzeko, halaber gomendatzen zaio ziurtagiriak eta/edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

Se complementa con la recomendación de disposición de certificaciones y/o planes en materia de sostenibilidad medioambiental, igualdad de género, promoción del euskera y responsabilidad social corporativa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza honen xede diren jarduera guztietan herritarrek EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da, eta, herritarren artean zabalkunde zabala eragiten duten ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan (propaganda, errotulazioa, kartelak, komunikabideak, etab.) euskara erabiltzeko betebeharra beteko da, eta dirulaguntzaren xede diren jardueretan parte hartzen duten edo interesa duten pertsonekin izaten diren ahozko eta idatzizko komuikazio guztietan euskara erabiltzekoa ere bai.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 13 del decreto foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral, se garantizará el derecho de la ciudadanía a usar cualquiera de los dos idiomas oficiales de la CAE en todas las actividades que son objeto de esta subvención, se dará cumplimiento a la obligación de usar el euskera en todas las comunicaciones orales y escritas que conlleven una difusión amplia entre la ciudadanía (propaganda, rotulación, cartelería, medios de comunicación, etc.) y a la obligación de usar el euskera en todas las comunicaciones orales y escritas que se mantengan con las personas participantes o interesadas en las actividades que son objeto de la subvención.

Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12.2 artikuluko e) letran ezarritakoak.

La firma del presente convenio conlleva la autorización de la beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento por parte de la beneficiaria de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, establecidas en la letra e) del artículo 12.2 de la NFS.

LAUGARRENA.- APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen hau administratiboa da eta honako arau hauek beteko ditu:

- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.
- 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duena.

CUARTA.- RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por:

- La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
- El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005.

- Otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretua: printzipio orokorrei, hizkuntzari, eta materialei dagokienez gidako 8.a.2) ataleko klausulak aplikatzeari buruz ezartzen dena. Era berean, genero berdintasunerako plana.
- Hitzarmena bera.
- Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak, eta halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

- El Decreto Foral 16/2018, de 27 de febrero, en lo referente a la aplicación del clausulado del apartado 8.2.a) de la guía, en cuanto a los principios generales, lenguaje y materiales, así como el plan de igualdad de género.
- El propio convenio
- Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

BOSGARRENA.- HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

QUINTA.- COMPATIBILIDAD O INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS, INGRESOS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauek ezarritakoa ezertan eragotzi gabe. Hala ere, dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluak ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

La subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, conforme al artículo 18.3 de la NFS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Elkarteak, hitzarmen honen xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortuz gero, modu sinesgarrian jakinarazi beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Lurralde Lehiakortasuna eta Turismo Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Bere ekimenez dirulaguntzaren bat itzuli badu, itzulketa-gutunaren kopia erantsiko du.

La Asociación, en caso de obtener otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades objeto de este convenio, deberá comunicarlo de modo fehaciente a la Dirección General de Competitividad territorial y Turismo del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, acompañando copia de la carta del reintegro que, en su caso, hubiera realizado por propia iniciativa.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK ETA MODUAK. BERME-ARAUBIDEA

SEXTA.- PLAZOS Y MODOS DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN. RÉGIMEN DE GARANTÍAS

Hitzarmen hau sinatutakoan ordainduko da dirulaguntza, eta Elkarteari ez zaio bermerik eskatuko, Bizkaiko Foru Aldundia Elkartearen

El pago de la subvención se realizará a la firma del presente Convenio y no será exigible la prestación de garantía por parte de la Asociación.

bazkide sortzailea da, Eusko Jaurlaritza, Bilboko Udala, EUDEL, Bilboko Ganbera, EHU, Deustuko Unibertsitatea, eta Iberdrola besteak beste.

La Diputación Foral de Bizkaia es socia fundadora de la Asociación, junto con otras entidades como el Gobierno Vasco, Ayuntamiento de Bilbao, EUDEL, Cámara de Bilbao, UPV, Universidad de Deusto, Iberdrola, entre otros.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundia Elkartearen gobernu-organoaren parte da. Aurrekoa kontuan hartuta, ez da antzematen hitzarmen honen bitartez bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Asimismo, la DIputación Foral de Bizkaia forma parte del órgano de gobierno de la Asociación. Teniendo en cuenta lo anterior, no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este Convenio.

ZAZPIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA GAUZATZEKO EPEAK

Dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatzeko entitate onuradunak jasotako funtsak, 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean aplikatu beharko dira.

Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Bizkaiko Foru Aldundiari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea; erakundeak baimena eman dezake ustekabeko arrazoietan edo jarduketaren xedearen onerako beharrezko arrazoietan oinarrituta denean eta betiere akordioaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste inoren eskubideen kaltetan jotzen ez bada.

SÉPTIMA.- PLAZOS DE EJECUCION DE LA ACTIVIDAD SUBVENCIONADA

Los fondos recibidos por la entidad beneficiaria, para la realización de las actividades objeto de la ayuda, deberán aplicarse entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2022.

La entidad beneficiaria podrá solicitar de la Diputación Foral de Bizkaia, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad del acuerdo y no se dañen derechos de terceros.

ZORTZIGARRENA.- JASOTAKO DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA.

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz jasotako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko da 2023ko martxoaren 31an aurretik.

Justifikatzeko moduari dagokionez, 34/2010 Foru Dekretuak (Dirulaguntzei buruzko Foru Araudia) 59. artikuluan xedatutako modalitatea erabiliko da, hau da: justifikazio-kontua eta Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule

OCTAVA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PERCIBIDA

La presentación de la justificación de la subvención recibida como consecuencia de la firma del presente convenio no deberá superar el plazo de 31 de marzo de 2023.

En cuanto a la forma de justificación, será la de la modalidad establecida en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010, de23 de marzo, por lo que la beneficiaria deberá presentar una cuenta justificativa acompañada de un informe de una persona auditora de cuentas inscrita como

gisa inskribaturiko kontu-auditore baten txostena aurkeztu beharko dira.

Kontu-auditoreak berrikusi beharreko justifikazio kontuan ondoko agiri hauek bilduko dira:

- Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria bat, egin diren jarduketak eta lortu diren emaitzak adierazten dituena.

- Bertaratze-laukia, adierazteko zenbat pertsonak parte hartu duten, kopuru hori zehaztu behar da sexuaren arabera (IV. Eranskina).

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; osagai hauek eduki behar ditu:

- Diruz lagundutako proiektuari egotzitako diru-sarreren eta gastuen egoera orria, erantsitako ereduan egina (I. eranskina).

- Aurreko a) atalean adierazitako gastuen egoera orria osatzen duen partida bakoitzerako, diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa aipatuz, bai eta zenbatekoa, bidaltze-eguna eta, hala badagokio, ordainketa-eguna ere. (II.1 eta II.2 eranskina).
- Gastuen zerrendan jasotako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideak.

- Diru-sarreren egoera orria osatzen duten partidetariko bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreren edo baliabideen zerrenda xehakatu bat. Horietariko bakoitzaren zenbatekoa eta iturria adieraziko dira. (III. eranskina).

- Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluaren arabera pertsona onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría.

La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora de cuentas contendrá la siguiente documentación:

- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

- Cuadro de asistentes a las actividades subvencionadas, indicando el número de personas asistentes, desagregado por sexo (Anexo IV).

- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

- Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto subvencionado, según modelo adjunto (Anexo I).

- Para cada una de las partidas que componen el estado de gasto señalado en el apartado a) anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. (Anexo II.1 y Anexo II.2).

- Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación de gastos.

- Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, de las subvenciones, ayudas o ingresos o recursos que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia. (Anexo III).

- Los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la NFS, deba haber solicitado la persona beneficiaria.

Aipaturiko agiri horiek, jarduera normal garatu dela ziur egoteko, 2022 urtean zehar garatutako guztia jasoko dute.

Auditoreak egin behar duen txostenaren irismena eta edukia Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduak (foru sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartu dituen horrek) 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Araudiko (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua) 59. artikuluan jasota daude.

Txosten ekonomikoan jasotako gastuen egoera-orria berrikusiko da, 945/2011 Foru Aginduko 3.2.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Zehazki, honakoak berrikusiko dira:

- Erakundeko langileen arloko gastu guztiak.

- Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, gastuen zerrenda sailkatutik lagin bat hartu behar da prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila %95ekoa izan behar da eta errorea ±%5ekoa.

Honelakoetan ondoko datuak ere adierazi behar dira: zer sistema erabili den lagina hartzeko, zenbat elementu analizatu diren eta zenbat dauden guztira, eta aztertutako laginean aurkitutako akatsen ehunekoa (elementuen kopurua eta ukitutako gastuen zenbatekoa aintzat hartuta).

BEDERATZIGARRENA.- EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Lehiakortasuna eta Turismo Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio

La citada documentación, a efectos de tener constancia del normal desarrollo de la actividad, estará referida en su totalidad a lo desarrollado a lo largo del año 2022.

El alcance y contenido del informe a emitir por la persona auditora será el establecido en los art 3 y 7 de la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el art. 59 del Reglamento de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

La revisión del estado de gastos que forma parte de la memoria económica, conforme se señala en el artículo 3.2.b) de la Orden Foral 945/2011, se realizará:

- Sobre la totalidad de los gastos de personal de la entidad.
- Para el resto de los gastos directos, se seleccionará de la relación clasificada de dichos gastos, una muestra mediante procedimientos estadísticos que cumpla con un nivel de confianza del 95% y un error de más/menos 5%.

En este caso se indicará además el sistema de muestreo empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizada respecto del total y porcentaje de deficiencias detectadas respecto de la muestra analizada (también en término de número de elementos y cuantía de los gastos afectados).

NOVENA.- EVALUACIÓN Y SEGUIMIENTO

El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este Convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte de la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda

prozeduren pean jarriko da.

y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

Gainera, bildu diren alderdiek Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Kudeatzailea eratzea adostu dute; batzorde hori hitzarmenaren helburuak lortzeko beharko diren lankidetzarako eta koordinaziorako tresna izango da.

Además, las partes comparecientes acuerdan el establecimiento de una Comisión Gestora de Seguimiento del Convenio, como instrumento para lograr la adecuada cooperación y coordinación en la consecución de los objetivos del Convenio.

Hitzarmena sinatu duten alderdietako bakoitzak ordezkari bat edukiko du Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Kudeatzaile horretan: Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendari Nagusia izango da eta Bilbo Metropolitarra Birbizteko Elkartearen ordezkaria, bestetik, horren zuzendari nagusia, edo eskuordeetzen dituzten pertsonak.

